

Getxo >MEETING<



GetxoMeeting, azaroak 30
Emozioen potentzia

Azaroaren 30eko Getxo Meetingeko hiru gako nagusiak partekatzen ditugu. Ezin izan bazenuen etorri, enpresa propioa daukan jendearen elkargune honetan bizi dugunaren ondorioak jakin nahiko dituzu.

1) Egiten dugunaren mamia: Ariketa honetan bisualki laburbiltzen dugu geure enpresaren jarduera. Horren bidez, batetik, gainerako pertsonak sakonago ulertu zuten zein den negozio horren egiteko modua eta balio erantsia. Bestetik, bakoitzak enpresa ikusteko duen moduan inplizitu dauden eta azalera atera ohi ez diren gauzez jabetu ginen gutako bakoitza.

2) Hegan egitea, lurrera jaisteko: Loturarik gabeko hitzetatik abiatuta bakoitzak sortu zituen negozio-ideia irudimentsuetatik, pertsona bakoitzak bere enpresarentzat baliotsuak diren klabeak atera zituen. Modu honetan, irudimena leku berrietara eraman genuen, eta gero lanaren alorrera ekarri. “Ideiak birziklatzea” –hau da, ohikoak ez diren proposamenetako gauza interesgarriak jasotzea– sormenaren gakoetako bat da, ekintzaile ororentzat ezinbestekoa.

3) Emozioen indarra: Zer daukate berdin kultur kudeaketako kolektibo batek eta abokatu batek? Eta apainketa enpresa batek eta psikoterapeuta batek? Getxo Meetingen gogoetatik abiatuta, emozioen garrantziaz jabetu ginen. Artelan bat egitean, erreforma integral bat egitean, ... prozesu emozionalak gertatzen dira gure bezeroengan, eta emozio horiei entzutea, haiei eustea, beraiekin egotea, eraldatzaileak izan daitezen laguntzea... ezinbestekoa da ondo senti daitezen.

Seguruenik, ikasgai hauek eta saioan ateratako ideiak etorkizuneko kolaborazioen eta ikuspegi berrien hazia izango dira proiektu berriak abiatzeko orduan.

Izan ere, Getxo Meetingen ekintzaileei, enpresaburuei, artistei eta abarrei interesatzen eta inporta zaigunaz gogoeta egiten dugu, inspirazioa lortzeko eta ikuspegiak trukatzeko.

Finean, sarea sortuz aurrera egiteko.

Etorri nahi duzu hurrengora? 2017ko azkena izango da.

Abenduaren 14an izango da, **12:00etatik 14:00etara**. Tokia: Getxo Elkartegia (Ogoño kalea 1, 48930 Areeta Getxo)

Gogoratu: Doako topaketak, tematikoak, enpresaburu edo ekintzaileentzat. Parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da aldeaz aurretik izena ematea. Horietako bakoitzerako eman beharko da izena, topaketak independenteak baitira. Formatua dinamizatua eta parte hartzekoa da. Beraz, ez espero ikastaro bat. Hemen ekarpenak egitera eta berdinegandik inspirazioa jasotzera gatoz.

Horri buruzko informazioa jasotzeko edo izena emateko, jar zaitez gurekin harremanetan 94 466 01 40 telefono-zenbakiaren bitartez edo getxopro@getxo.eus helbide elektronikoaren bidez.